



ELEKTRARIDE

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Jarraian aipatuko ditugun baliabideek gure enpresak aurrera egitea eta diru-sarrerak lortzea ahalbidetuko digute. Baliabide motaren arabera, lau azpigaietan banatu ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokienez, gure enpresa aurrera eramateko zenbait eremu fisiko beharko ditugu, hala nola, gure garraioaren produktu printzipala izango dena, patineteak. Ondoren auzo bakoitzeko eremu publiko batean ezarriko ditugun aparkalekuak, eta horrekin batera dagozkien eguzki plakak. Bestalde, bulego bat alokatzea pentsatu dugu, edozer gauza dela eta, gauzak gordetzeko leku bat eta deiak jasotzeko asmoarekin, gure produktua hobetzeko linea telefoniko bat edukiko dugu eta. Bulego hau Oreretan kokatuko dugu. Horrela, pertsonalki arduratuko gara patineteekin arazorik egongo balitz. Gertutasuna ezinbesteko balioa izango da gure bezeroen eskuragarritasunarentzat. Bestalde, eguzki plakak ere erabiliko ditugu, gure produktua jasangarriagoa izateko. Horrek lan gehiago emango digu hasiera batean baina gastuak txikiagotuko dizkigu eguzki energia erabiliko dugula. Horrez gain, teknologia ekipo bat erosi beharko dugu, gure aplikazioa, kuotak, gastuak, harpidetzak etab. kudeatu ahal izateko. Teknologian trebeak garen arren laguntza gehiago beharko dugu, beraz, informatiko bat kontratuko dugu.

Baliabide intelektualei erreferentzia egiten badiogu, hiru baliabide izango ditugu; sistema operatibo informatiko bat, eta horrekin batera aplikazioa eta honen QR-a egongo dira, hau dena konektatua egongo da, patineteak hartu eta erabili ahal izateko, nahi aina aldiz eta nahi denean. Lehendabizi sistema operatibo informatiko bat beharko dugu, aplikazioa aurrera eramateko. Dena ondo funtzionatzeko aplikazio bat sortu beharko dugu eta programatu. Aplikazio honetan aparkalekuen mapa bat, galderak eta iradokizunak egiteko linea bat, izen emateko eta horrekin kuota aukeratzeko atal bat egongo dira; baino garrantzitsuena eta gure baliabide intelektuala, QR-a izango da. Honekin gure zerbitzua funtzionatzea lortuko dugu, patinete bakoitza bere QR pertsonala edukiz nahi duten patinetea desblokeatuko dute eta aparkatzean QR-a berrir eskaneatuz blokeatuko egingo dira, horrela kronometro bat edukiz eta bakoitzaren kuotari behar den dirua gehituz. Patineteak QR-a propia izango duenez, zure aplikazioarekin QR-a irakurtzen dezunean patinete hori desblokeatzeko programatuta egongo da. Uzterakoan QR-a berriz eskaneatuz programatu egongo da blokeatzeko eta kronometroa gelditzeko.



ELEKTRARIDE

Ezinbesteko da giza baliabideak garrantzitsuenak direla azpimarratzea, pertsonen eramango dugulako lana aurrera. Nabarmenezkoa da enpresa txikia bat izango garela, izan ere, gure zerbitzua aurrera eramateko ez ditugu hainbeste langile beharko. Lehenengo, gure enpresak zuzendari bat eduki beharko du, gurea Adur Zubieta izango da, dena antolatuko duena. Finantza zuzendari bat beharko dugu, Malen Lopez, kuotak eta bakoitzaren soldatak kontrolatuko dituena, kontable talde bat edukiko du. Aiora Mata gure Kalitatearen Kontrolatzailea izango da, gure bazkideen nahiak aztertuko ditu eta zerbitzua hobetzen jarraituko du. Ingeniari arduraduna ere beharko dugu eta hau Unax Agote izango da, bera patineteen diseinuaz eta funtzionamenduaz arduratuko da, eguzki plakak barne. Honetarako laguntza beharko duenez, informatiko bat edukiko dugu eta baita ingeniari talde bat ere produktua eta aplikazioa aurrera eraman ahal izateko. Azkenik, marketin eta publizitate zuzendari bat beharko dugu, hau Irene Echamendi izango da, gure enpresa ezaguna izateaz arduratuko da eta kanpainak egingo ditu herriarentzat zerbitzu hurbila bihurtzeko.

Finantza-baliabideei dagokionez, bankuari mailegu bat eskatuko diogu gure proiektua hasteko, mailegu hori hasiera batean diru sarrera bat izango da, gure enpresak aurrera egiteko oso lagungarria den diru iturri bat izango dela argi dago. Baina, etorkizuneari begira, mailegu hori kostu bat izango da guretzat, izan ere, etorkizunean, mailegu hori bankuari bueltatu beharko diogu. Honetaz eta diruarekin zerikusia duen guztiaz Malen Lopez, finantza zuzendaria, eta haren laguntzaileak (kontableak) arduratuko dira. Maileguaren kopurua normala izango, patineteak eta eguzki plakak lortzeko nahikoa. Hasiera batean berrogeita hamar patinete jartzea erabaki dugu, zerbitzua handitzen dijoan heinean kopurua handiko dugu. Horrela, bost patinete egongo lirateke aparkaleku bakoitzean eta hamar aparkaleku egingo genituzke hasieran. Beraz patinetetan hasiera batean 25.000€ inbertitu ditugu, baino bulegoarentzat, plaka solarrentzat eta beste hainbat gauzentzako dirua beharko dugula kontuan hartuta gure eskaera handiago izango da. Horregatik erabaki dugu 45.000€ eskatzea bankuari, beti ere diruaren oso kontrol eguneratua eta zehatza mantenduz eta lan egiteko dirua itzultzeko eta erabilpen ona emateko diruari.

Aurreko guztia kontuan hartuta, argi dago gure proiektua aurrera eramateko behar ditugun baliabideak funtsezkoak izango direla. Hauek ondo aprobetxatzeko eta zerbitzu onena eskaintzeko dena taldeko kideek zuzendu eta kontrolatuko dugu, beti ere guretzat hain garrantzitsua den gertutasuna adieraziz eta gure helburu eta ideiak mantenduz.